



AMEZKETAKO UDALA



## ALKATEAREN DEKRETUA

### AMEZKETAKO UDAL ERAIKINETAKO GARBITZAILE BAT, ALDI BATERAKO KONTRATAZIOA EGITEKO HAUTAKETA PROZESUAREN EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEAREN IZENDAPENA

2022ko martxoaren 31ko Alkatearen Ebazpenaren bidez, Amezketako Alkateak Amezketako udal eraikinetako garbitzaile bat, aldi baterako kontratazioa egiteko hautaketa prozesuaren deialdia eta oinarriak onartu zituen. Oinarrietan ondorengoa jasotzen zen:

#### 8. Epaimahai kalifikatzailea.

a) *Izendapena.* Alkate-presidenteak ebazpena emango du Epaimahai Kalifikatzaileko kide titularrak eta ordezkioak izendatzeko. Izendapen horiek onartuen eta baztertuen zerrendarekin batera argitaratuko dira.

b) *Osaera.* Presidente batek, idazkari batek eta bokalek osatuko dute Epaimahai Kalifikatzailea, eta horiek baloratuko dituzte merituak. Kide kopuru bakoitiak osatuko du Epaimahaia, ez hiru baino gutxiago, idazkariak gainera. Guztiak ere enplegatu publikoak izango dira, deialdi honetan parte hartzeko eskatzen den maila bereko edo goragoko titulazio akademikoarekin. Epaimahaiko kideak izendatzeko, inpartzialtasunaren eta profesionaltasunaren printzipioak errespetatu beharko dira, eta genero-parekotasuna sustatuko da.

c) *Jarduna.* Epaimahaiak Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean jasotako xedapenen arabera jardungo du. Epaimahai Kalifikatzaileko kideek ezin izango dute esku hartu, lege horrek xedatzen dituen inguruabarrak gertatzen badira, eta hala jakinaraziko diote alkateari. Izangaiak ere epaimahaikideak errefusatu ahal izango dituzte, lege horrek dioenarekin bat, lehen adierazitako inguruabarrak gertatzen direla irizten diotenean. Epaimahaia ezingo da eratu, eta ezingo du jardun, gutxienez, epaimahaikideen erdiak, titular nahiz ordezkio, bertan ez badira; gainera, ezinbestekoa da presidentea eta idazkaria edo haien ordezkioak bertan izatea. Epaimahaikide guztiek izango dute ahotsa eta botoa, idazkariak izan ezik; eta erabakiak bertaratutako kideen gehiengoz hartuko dira; berdinketa dagoenean, presidenteak edo horren ordezkioak erabakiko du.

Guzti honengatik,

#### ERABAKI DUT:

**BAT:** Amezketako udal eraikinetako garbitzaile bat, aldi baterako kontratazioa egiteko hautaketa prozesuaren epaimahai kalifikatzailearen izendapena egitea, eta epaimahaikideak ondorengoak dira:

Lehendakaria: Udal Idazkari-kontuhartzailea	Bokala: Udal Arkitekto-teknikoa
Bokala: Plnatillako udal garbitzailea	Idazkaria: Idazkaritza-kontuhartzaitzako administraria

**BI:** Ebazpen hau udal web orrian argitaratzea.

Alkateak agindu eta sinatzen du, eta nik, idazkariak, fede ematen dut

Amezketan,

Alkate-Lehendakaria  
Iñaki Amundarain Tolosa

Idazkaria  
Jon Burgaña Agoues

---

AMEZKETAKO UDALA      Fernando Amezkettarraren enparantza z/g    20268    Amezketan    (Gipuzkoa)  
Tel: 943 65 31 89      Fax: 943.05.40.30      www.amezketa.eus      udala@amezketa.eus



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU91566979-67e8-429c-9fbf-8dde44e5b60a**

Dokumentu elektronikoen honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeke, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:  
**<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=00810>**

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=00810>**

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2022DKTO0035-Alkatearen Ebazpena/Decreto del Alcalde (AMEZKETAKO UDALA)